

5. TXOSTENA

**ANTOLAKETA DEMOKRATIKOA MILITANTZIAZKOA,
ARINA, EUSKADIREN ERRONKA POLITIKO ETA SOZIALEI
ERANTZUTEKO**

AURKIBIDEA

1	INTRODUCCIÓN	3
1.1	Testuingurua.....	3
2	HELBURUAK.....	4
3	GORDETZEA PLANTEATZEN DUGUNA.....	6
4	INDARTU, BERRIKUSI, LANDU ETA JASO BEHAR DITUGUNAK	8
4.1	Indartu behar dugu	9
4.1.1	Alderdikideen parte hartzea	10
4.1.2	Entzutea	10
4.1.3	Tokiko lidergoak.....	11
4.2	Berrikusi behar dugu	12
4.2.1	Migratzaileen ahalduntzea eta ordezkaritza politikoa sustatzea:	12
4.2.2	Desburokratizatzeko	12
4.2.3	Kargu eta ordezkarien jarduna ebaluatzeko sistema	13
4.2.4	Ospakizun nagusiak	13
4.2.5	Bateraezintasun-sistema	14
4.2.6	Karguen iraupena	14
4.2.7	Komunikazio-kanalak indartzea.....	14
4.3	Landu behar dugu.....	15
4.3.1	Kudeaketa- eta koordinazio-sistematika	15
4.3.2	Etika sistema eta Compliancea	15
4.4	Jaso behar dugu.....	15
4.4.1	Arreta emateko eta harremanetan jartzeko bermeak, kanal presentzial eta digitalaren bidez. Digitalizazioaren aldeko ahalegin irmoa.....	15
4.4.2	Pertsonak kudeatzeko politika integrala	16
4.4.3	Erakundea alderdizaleei irekitzeko estrategia, ondorengoak barnean hartuta.....	17
4.4.4	Prestakuntza eta topaketak sustatzea gaika antolatutako lantaldeen bidez, egoitzetan eta Batzokietan jarduera bereziak egiteko eta, halakorik ezean, alderdikideak batzen diren tokietan.	17
4.4.5	Elkarlanerako guneak sustatzea	17
4.4.6	Antolaketa Txostenak Aberri Estatutuekin eta Jarraipen Lantaldearekin izango duen lotura.....	18
5	ONDORIOAK	18

1 INTRODUCCIÓN

Aldaketak etengabe eta arintasun handiz ematen ari diren garaiak bizi ditugu. Aldi honetan alderdiek, beren nortasuna alde batera utzi gabe, errealitate sozial, politiko eta ekonomiko berri horretara egokitzeko gai izan behar dute, egitura arinago eta malguagoekin, etengabe aldatzen ari den gizarteari erantzuteko moduko gaitasun handiagoarekin.

Gure antolaketa-modua egokitzeko lanari heltzeko orduan, ezinbestean ekin behar zaio alderdi gisa dugun nortasuna eta ia 130 urte bete dituen erakunde politikoa izateak ematen digun balio handia errespetatuz. Edozein aldaketa eta egokitzapen burutu beharko da egin beharreko berrikuntza eta gure nortasuna errespetatu beharra kontuan hartuz; prozesu horrek barne hartu beharko ditu bultzatzen ditugun politiken eragina ebaluatzeko mekanismo argiak. Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da prozesu honi ekitea, garenetik gorde nahi duguna nabarmenduz, gaur egun arte zeresan politiko handia eman digun 130 urteko historiaren ikuspegia ez galtzeko.

1.1 Testuingurua

Desafekzioa eta urruntzea. Gizartean oso sustraituta dauden demokrazietan, politikarekiko gero eta desafekzio handiagoa ematen ari da, herritarrak erakundeetan eta alderdi politikoen artean gertatzen diren erabaki eta eztabaidetatik urrun sentitzen baitira.

Horri lotuta, gizartea gero eta indibidualizatuago dago, zerbitzu eta konpromiso publikoarekin inplikaturik dagoen gizartea izatetik “beharrizan partikularrei begira dagoen gizartea” izatera igaro delako, eta administrazioa eta erakundeak ikusten dituzte zergen bidez ordaintzen dituzten zerbitzuen hornitzaile gisa. Oro har, herritarrek galdu egin dute “denona” den horren kide izatearen sentimendua, hau da, esparru publikoa euren ere baden sentimendua galdu dute, eta horrek ekarri du erakundeei eta haiek kudeatzen dituztenei ikuspegi gero eta kritikoagoarekin begiratzea.

Gizartearen indibidualizazio-fenomeno horri gehitzen zaio berehalakotasun-sentimendu handi bat. Herritarrek, beren bizitzako beste esparru batzuetan prestazioak berehala jasotzen dituztenez, aurreikuspen hori berori erakunde publikoekiko harremanetan erakusten dute, eta beren arazoetarako konponbide azkar eta eraginkorrak eskatzen dituzte. Presazko sentsazio horrek tentsioak sortzen ditu herritarren eta erakundeen arteko harremanetan, fokua berehalako emaitzetan jartzen baitu, eta emaitza horiek, askotan, ez datoz bat unean uneko erronken konplexutasunarekin. Ondorioz, konponbideak behar bezain bizkortzat hartzen ez direnean, publikoarekiko gogobetetasunik eza eta mesfidantza areagotzen dira, eta zailago egiten da ikuspegi partekatua eta epe luzekoa eraikitzea.

Bestalde, politikaren arrakasta edo porrota da, neurri handi batean, gizartearen beharrak identifikatzeko eta itxaropenak kudeatzeko arrakasta edo porrota. Demokrazia finkatuak, azken hamarkadetan gero eta ongizate handiagoa eta, itxuraz, mugagabea eskaini dutenak, erantzun zaileko dinamika batean sartu dira, objektiboki eta ezaugarri orokorrei begira aurreko garaietan baino hobeto bizi arren, etengabeko asegabetasunean bizi dela dirudien gizarte batekin. Europar dimentsioko gizarte-dinamika nagusi horrek funtsezko eragina du politikaz eta alderdiez dugun pertzepzioan, eta, gainera, oso konpontzen konplexua da, dinamika sozialei, ekonomikoei eta tokian tokikotik nekez hel

dakiekeen balio-dinamikei erantzuten baitie.

Populismoen gorakada. Mugimendu eta alderdi populistak ugaritu egin dira, eskuinekoak zein ezkerrekoak, diskurtso errazak darabiltzate, herritarren arazo eta eskaera zehatzetara zuzen-zuzenean doazenak, planteamendu sinplista eta zorrotzekin. Gizartean arazoen konponbidea ikusaraziz ñabardurarik gabeko diskurtsoekin. Euskadin ere ikusi ditugu balio horien babesean hazi diren alderdiak, argi eta garbi indibidualismora jotzen dutenak, gizartea azken urteotan bizi izan den etengabeko gogobetetasunera, alegia. Testuinguru horretan, gure ekintza politikoa beti izan da Euskadi herrialde gisa defendatzea, erkidego gisa, hau da, balio eta interes komun eta askotarikoak defendatzea. Guztion interesa defendatu dugu eta defendatzen dugu, norbanakoen interesaren gainetik, gure aurkari zuzenenek orain aldarrikatzen ari direna, itxuraz diskurtso sozial batean bilduta aurkeztu nahi duten arren. Gure erronka da abertzaletasunaren pedagogia egitea, konponbide orekatuena, arazo konplexuei irtenbide magikoak eskaintzen dizkietenek kontra.

Alderdikideez hustea. Euskadiko Ongizate Estatuaren bilakaerak eta azken hamarkadetako dinamika instituzionalak alderdikideez hustu dituzte alderdi politikoak. Politikan parte hartzeko arrazoiek argitasuna galdu dute, eta kasu askotan Herria ikusteko modu jakin batekiko berezko konpromisora mugatzen dira. Gure Alderdia demokraziaren lehen urteetan hazi zen bereziki, demokraziaren ilusioak eta Herri honi forma eman dioten erakundeen eta zerbitzuen egituraketa eraikitzeak aukera eman zigun ilusio ikaragarriak bultzatuta. Gainera, testuinguru sozioekonomiko zehatz batean gertatu zen, non militantzia sozial eta politikoa pizgarri baitzen sozializatorako eta garapen pertsonalerako arrazoi bat aurkitzen zuten pertsona askorentzat. Hori guztia aldatuz joan da azken urteetan, bai antolaketa instituzional hori sendotu delako, bai alderdikideen euren gizarte-ohiturak aldatu direlako, eta aldaketa hau gero eta nabarmenagoa izan da Covid-19ko pandemia ostean.

EAJ-PNV alderdikideen alderdia baino gehiago da, masa-alderdia baino gehiago, komunitate- alderdia da. Sortu zenetik izan da Euskal gizarteari antz handiena hartzen dion erakundea, Euskadiko herritarrak hobekien ordezkatu dituenak. Hemendik aurrera daukagun erronka da formula berriekin asmatzea, orain artekoa izan garena izaten jarraitzeko, hau da, euskal gizartean errotutako alderdi politikoa.

Garaian garaiko antolaketa. Alderdiak funtsezko erakunde demokratikoak dira, hala izan dira mende bete eta erdian. Gizarte-aldaketen parte eta ondorio dira, eta, horregatik, egokitu egin behar dira. Hainbat hamarkadatan oso eraginkorra izan den antolaketa-egitura dugu, baina berriz pentsatua izan behar da gizarte berrira moldatzeko, non komunikabide berriek, gertakarien arintasunak, inplikazio aktiboari eta elkarlanari eusteko beharra edo ordezkariak eta militantzia prestatzeko eta trebatzeko beharra aintzat hartu beharko baitira egungo garaietara moldatutako erakundea izango bagara.

2 HELBURUAK

EAJ-PNVri bere Batzar Nagusia egitea egokitu zaio testuingurua zail eta aldakor batean, erronka

handiekin eta konpondu beharreko arazoekin, bai barruan, bai kanpoan. Munduko azken gertaerek demokraziaren gainbeheraz ohartarazten digute, eta gogobetetze-ezaren sentrazio gero eta handiagoa dago, bereziki belaunaldi gazteenen artean. Haserre horren arrazoiak askotarikoak dira. Gizarteek, pertsonak, sentitzen dute politikak ez dituela arazoak konpontzen, ez eta erronka globalei aurre egiten ere. EAJ-PNVk eta beste alderdiek askotariko erronkei egin behar diete aurre, eta erronka horiek beren funtzionamenduan eta ospean dute eragina. Gaur egun, konpromisoa, parte-hartzea, digitalizazioa, erabakiak hartzeko prozesuak eta informazioa ulertzeko modu berri bat dago; horiek guztiak funtsezkoak dira erakunde politiko batentzat. Horrek aldaketa ekarri du herritarrek komunitatearen barruan duten parte-hartzea ulertzeko moduan, eta bereziki alderdi politikoen barruan. Gizarte-ohitura berrien ondorioz, militantzia politiko eta sozialaren aurrean pertsonen bizitzan gero eta garrantzi handiagoa hartu duten beste faktore batzuk agertu dira, hala nola kontziliazioa eta aisialdia.

Horregatik erabaki da txosten hau aurkeztea Bere helburu nagusia da EAJ- PNV erakunde demokratiko, humanista, berdintasunezkoa, anitza, militantea eta arina izatea. Alderdikideek eta alderdizaleek entzun egiten zaiela sentitzea nahi dugu, beren irizpideak adieraztera animatu daitezela eta beste modu batean parte hartzerantz animatu daitezela, herri proiektu politiko zirrargarri, moderno eta eraginkor baten parte izanik. Alderdiak erakutsi behar du gizarteak eta bere herritarrek aurrez aurre dituzten arazoak entzuten dituela eta horiei erantzuten saiatzen dela, eta ondo ezagutzen dituela ibili beharreko bideak, bere arazoei irtenbide erreal eta zehatzak emateko. Hori guztia egin behar da alderdikideekin eta alderdikideen eskutik.

Aitortu behar dugu alderdikideen artean eztabaida bat ematen ari dela EAJ-PNVren funtzionamendua hobetzeko moduari buruz eta bizi ditugun erronkei eraginkortasunez erantzuteko eguneratu daitezkeen eta eguneratu behar diren gaiei buruz, alderdi transbertsalagoa izateko eta gizartearen hainbat geruzatan sustrai askoz zabalagoak izateko. Barne-elkarriketa hori areagotu egin zen pandemiaren ondoren eta horrek eragin zituen ondorio politikoekin. Gure alderdikideek baten baino gehiagotan adierazi dute, berrikitan "Entzunez Eraiki" prozesuan, aldaketak egiteko beharra, gure Alderdia biziagoa, hurbilagoa, erakargarriagoa eta funtzionalagoa izan dadin. Alderdikideek sakoneko eraldaketak eskatzen dituzte Herri honen zentralitatean daukagun lekuari eusteko eta euskal gizartearen gehiengoaren kezka eta beharrekin konektatzeko. EAJ-PNV eredu eta erreferentzia izan da beste alderdi eta mugimendu batzuentzat, beren barne egiturak eraikitzeke orduan. Baina ezin gara horrekin konforme geratu. Garai berrietara egokitu beharra dago, eta barne-mailan sortzen diren erronka berriei erantzun behar zaie; erronka horiek erakundearen berezko dinamiken emaitza dira, eta, kanpo-mailan, Euzkadin eta munduan gertatzen diren aldaketen eragina gero eta bizkorragoa da.

EAJ-PNVk jarraitu behar du izaten demokrazia defendatzen duten eta Europan Euzkadi aske baten ideala harrotasunez babesten eta zabaltzen duten euskal herritarren etxea. Familia bat, azken batean, non elkarri entzuten diogun eta eskuz esku lan egiten dugun, euskal nazio errealitatea eta denon etorkizuna eraikitzeke. Horregatik bihurtu da bizitza politiko eta soziala ulertzeko eta parte hartzeko modu bat. Proposatzen dugun eraldaketaren helburua da EAJ-PNVren DNAk indartsu eta indarrean jarraitzea eta hurrengo belaunaldietarako biziberritzea. Etapa berri honetan, ezinbestekoa da begirada eta esperientzia desberdinak integratzen laguntzea, barneko zein kanpoko aniztasuna aprobetxatuz.

Alderdiaz kanpoko profilen parte-hartze aktiboa, lidergo berrituak bultzatzea eta gure politikak ebaluatzeko konpromisoa izango dira herrialdearen erreferente nagusia izaten jarraitzeko gakoak.

Duela 130 urte sortu zenetik, EAJ-PNV euskal herritarrentzako mugimendua baino gehiago izan da. Hurrengo belaunaldiei helarazi behar diegun ibilbideak ematen digun harrotasuna berretsi nahi dugu, triumfalismoan eta autokonplazentzian erori gabe, baina betiere euskal nazioa eraikitzeko bide demokratikoen aldeko apustu etiko etengabea azpimarratuz. EAJ-PNV izan da demokrazia, Euskadi, komunitatea eta bere interesak defendatzeko bidea.

3 GORDETZEA PLANTEATZEN DUGUNA

Txosten hau hasi dugu hausnarketa eginez, gaur egun ditugun balio, antolamendu- eta funtzionamendu-moduei buruzko gogoeta eta ikerketa apreziatiboa eginez. Horiek zaindu behar ditugula uste dugu, gure Alderdiaren garapenaren eta funtzionamenduaren oinarri genetiko funtsezkotzat hartzen ditugulako, gure DNA osatzen dute, gure izana. Euskadiko alderdi gidari izateko aukera eman diguna.

Eta gure txostena hasteko modu hau ez da besterik gabe gertatu, nahita egin dugu apreziaziotik abiatuta eboluzionatu behar dela uste dugulako.

Hausnarketa eta ikerketa apreziatibo sakon bat eginez, ondorengo bilakaera egingo da gure bizitzan arrakastatsu gertatu denaren arabera. Anbizioz aurrera eginez, gaur egun eta etorkizun hurbilean, positibotasunetik abiatuta, zuzenketak egiteko eta jaso behar diren elementu berriak jasotzeko, errealitate sozial, politiko, kultural eta teknologiko berrietara eta, batez ere, munduan bizi dugun etengabeko aldaketara moldatzeko.

Euzko Alderdi Jeltzalea bere militantziaren indarraren eraginez eraiki da, militantzia anitz eta askotarikoa, barne funtzionamenduan berdintasunez parte hartzeko eskubidea aitortzen baitu. Militantzia euskalduna eta euskaltzalea, euskara bere nortasunaren funtsezko elementu gisa bultzatzen duena.

Euzko Alderdi Jeltzalearen militantziak Euskadiko gizartearen espektro zabala ordezkatzeko du, eta horrek honela definitzen du Alderdia: erakunde politiko anitza, belaunaldien artekoa, askotarikoa, berdintasunezkoa eta inklusiboa. Militantzia horren mobilizazioa funtsezkoa da, Alderdia bere helburuak lortzera bultzatzen duen eragilea baita, aldaketa sozialak sortuz eta Euskadiren interesak defendatuz, herritarren parte-hartze indibidual eta/edo kolektibotik abiatuta.

Antolamendu-egiturari dagokionez, **hiru eremutan banatzen da: uria, herrialdea eta aberria**. Horietan guztietan, **botereak eta zereginak bereiztearen printzipioak egituratzen du antolaketa**, eta batzarrak dira eremu bakoitzeko organo burujabea, bakoitzari emandako eskumenei dagokienez.

Hiru antolaketa-eremuetan daude batzar bat, organo betearazle bat eta justizia-organoko bat. EAJ-PNVren zuzendaritza-organoko guztiak, edozein jardura-eremutan, kide anitzeko organoak dira, uri

epaimahaietako kideen kasuan izan ezik. Instantzia bakoitzak autonomia du antolatzeko eta funtzionatzeko, betiere Alderdiaren Aberri Estatutuek jasotzen dutena betez.

Aberri organoek euren eskumenen esparruan eta baliozkotasunez hartutako erabakiak berehala aplikatu behar dira, eta nahitaez bete behar dira, betiere uri- eta herrialde-mailako erakundeei erabakiak hartzeko dagokien eskumen-eremuarekiko errespetua bermatuz.

Uri erakundeak, eta bereziki Uri Batzarrak, Euzko Alderdi Jeltzalearen muina dira. Burujabetasuna erakunde horretako alderdikideen eskuetan dago, Uri Batzar horietan parte hartzeko duten eskubidean. Uri batzarrek lurralde mailan dute ordezkaritza, eta aberri mailan Batzar Nagusiaren kasuan, nahitaez bete beharreko aginduan oinarrituta. Bestalde, Herrialde Batzarrek ordezkaritza ematen dute aberri-eremuan, kasu honetan ere nahitaez bete beharreko aginduan oinarrituta.

Antolaketaren hiru eremuetan erabakiak **gehiengoan sistema** baten bidez hartzen dira. Uri batzarretan hartutako erabakiak herrialde batzarretara edo Batzar Nagusira eramaten dira, ordezkaritza bidez. Herrialde Batzarretan hartzen diren erabakiak Aberri Batzarrera edo Batzar Nagusira eramaten dira, aberri organo horietan dituzten ordezkarien bidez.

EAJko barne eta kanpoko karguak hautatzeko sistemak barne demokraziarekiko eta militantziaren parte-hartzearekiko konpromisoa islatzen du. Sistema horri esker, karguak, uri-, herrialde- eta aberri-esparruetan, zuzenean eta gardentasunez aukeratzen dituzte alderdikideek, eta horrek bermatzen du hautatutako pertsonen Alderdiaren eta alderdikideen interesak eta balioak defendatuko dituztela.

Barneko karguei zein kargu publikoei dagokienez, EAJ-PNV gidatu duten hainbat printzipio daude: eremu guztietan indarrean dagoen bateraezintasunen erregimen zorrotza, burubikotasuna, botere-banaketa, kargu-metaketarik eza eta botere-kontzentrazioarik eza bermatzen dituenak.

Kargu guztiek, barne karguek zein kargu publikoek, ondo zehaztuta izan behar dituzte beren jardun politikoaren helburuak, eta batzarrei dagokie helburu horiek egoki joko diren agirien bidez onestea eta ebaluatzea, dagokion eremuan, uri, herrialde eta aberri mailan, aldiro kontuak emateko betebeharra nabarmenduz.

Batzokiak oinarrizko elementu dira Euzko Alderdi Jeltzalearen funtzionamendurako. Barne-antolamenduko sistemaren funtzionamendurako antolaketarik garrantzitsuena dira, eta alderdikideen eta uri erakundeen topagune dira. Halaber, erakundearen eta alderdikide ez diren herritarren arteko hurbilketa eta harremanetarako espazio bat ere eskaintzen dute.

Militantziarako, ikasteko, zerbitzua emateko eta aisialdirako espazioak dira. Konpromisoari, parte-hartzeari, prestakuntzari, eztabaidari, belaunaldien arteko topaketari, lankidetzari, laguntza behar duten kausei eta abarri irekitako lekuak dira, ondo pasatzeko eta, bide batez atsegin duguna egia bihurtzeko. Batzokien barne bizitza berreskuratu behar dugu, eta alderdikide, alderdizale eta elkarrekin konpartitzera hurbildu nahi dutenentzako erreferente eta topagune bihurtu.

Alderdikideen, batzokien eta batzarretatik sortzen den antolaketaren baturak, EAJ-PNVri ematen dio Euskadiko gizartean presentzia zabala izateko aukera handia, gizarte horren aldaketak eta beharrak

ezagutzeko aukeraz gain.

4 INDARTU, BERRIKUSI, LANDU ETA JASO BEHAR DITUGUNAK

Eta, aurreko atalean, gorde nahi ditugun oinarriak jasotzen baziren, atal berri honetan azaldu nahi ditugu indartu, berrikusi, landu eta jaso nahi ditugunak, pentsatzen, esaten eta egin nahi dugunarekin bateragarriak izan daitezen, bai eta errealitate sozial, kultural eta teknologiko berriei ere, eta batez ere munduan bizi dugun testuinguru aldakorrera moldatzen lagun diezaguten. Egokitze-prozesu horrek berarekin dakar, halaber, funtsezko esparruetan (ekonomian, hezkuntzan, kulturean...) esperientzia duten eta alderdikide ez diren pertsonen ekarpenak jasotzeko eta integratzeko gaitasuna, Alderdiaren jardunean ikuspegi globalagoa eta profesionalagoa indartuz.

Alderdikideek eta herritarrek Alderdia aintzatesten eta baloratzen dute bere kargu eta ordezkarien jokabidearen arabera, beti ere gure txostenetan eta estatutuetan jasota dagoenarekin lerrokatuta eta erantzukizuneko tokietarako babesten ditugun pertsonen koherentzia eta profesionaltasunagatik ere. Beraz, egiteko modua aldatzen badugu, Alderdiaz egiten den balorazioa aldatuko da. Alderdiaren nortasun publikoa da gure barne karguek eta ordezkariak egiten dutenaren arabera. Benetan garrantzitsua dena da egun bakoitzean EGITEN eta ESATEN DUGUNA, gure jokaera eta jardunbidean zintzotasunez eta garbi jokatzeko.

Garbitasun hori bermatzeko, asmo handiz, idealismo pragmatikotik, beharrezko ditugun zereginak identifikatu eta sailkatu ditugu. Katagoria horiek etengabeko hobekuntza-prozesu batera eramane behar gaituzte, gure politiken eraginaren ebaluazioa eta militantziaren eta herritarren aurrean kontuak ematea barne hartuko dituen, gardentasunaren eta atsegintasunik ezaren kultura sendotuz:

- **Indartu:** Iraganen protagonismo handiagoa izan zutelako, baliagarriak direlako eta balioetsi behar ditugulako.
- **Berrikusi:** Bizi garen munduaren inguruabar aldakorren eraginez eta gizartearen exigentzia berriengatik egokitu egin behar diren gaiak.
- **Landu:** Bere sasoian identifikatu ziren arren, behar beste landu ez ziren eta garatu beharko liratekeen alderdiak.
- **Jaso:** Praktika berriak, orain arte beharrezkotzat jo ez ditugunak, eta hala eta guztiz ere gaur egun ezinbesteko bihurtu direnak.

<u>INDARTU</u> • Alderdikideen parte hartzea. • Entzutea. • Tokiko lidergoak.	<u>BERRIKUSI</u> • Desburokratizatzeko. • Kargu eta ordezkarien jarduna ebaluatzen sistema. • Ospakizun nagusiak. • Bateriaezintasun-sistema. • Karguan jarraitzen denbora. • Komunikazio-kanalak indartzea.
<u>LANDU</u> • Kudeaketarako sistematika. • Etika eta compliance sistema. • Giza-baliabideen politika barne karguentzat eta kargu publikoentzat.	<u>JASO</u> • Kanal presentzial eta digitalaren bidez arreta eta harremana bermatzea. • Pertsonak kudeatzeko politika integrala • Erakundea alderdizaleei irekitzeko estrategia bat. • Gaikako lantaldeen bidez prestakuntza eta topaketak sustatzea. • Elkarlanerako guneak sustatzea. • Antolaketa Txostenari jarraipena egiteko batzorde bat eratzea.

4.1 **Indartu behar dugu**

Batzokien eredugarritasuna berreskuratu. Gure ideologiarekin koherenteak diren espazioak izan behar dira batzokiak, euskarari dagokionez bereziki. Hortaz, publikoari irekita dauden taberna/jatetxeetako langileak euskaldunak izan behar dute derrigorrez edota euskalduntze prozesu aktiboan egon, atxikimendu nabari bat izan behar dute azken finean.

4.1.1 Alderdikideen parte hartzea

- Parte-hartzea sustatu: Aldiro tailer, eztabaida eta mintegiak antolatu, alderdikideek, alderdizaleek eta lider sektorialek ideiak eman eta politiken lanketan parte har dezaten.
- Partaidetza digitalizatu: Tresna digitalak abian jarri, alderdikideek eta sektoreetako profesionalak dauden tokitik bozketetan parte har dezaten, ideiak proposatu eta Alderdiaren erabakietan parte hartu ahal izan dezaten
- Lidergo sektorialeko sareak: Alderdiaren barruan lidergo sektorialeko sareen sorrera sustatu, lider horiek zuzendaritza politikoan eta estrategikoan eragin eta lagundu ahal izan dezaten.

Batzar eta bileretako gai-zerrendak birdefinitzea. Antolaketa modernoagoa, dinamikoagoa eta irekiagoa sustatzea. Horrek esan nahi du berriz definitu behar dela landu beharreko gaien agenda, entzuteko eta komunikatzeko prozesuan aztertu eta jaso diren premia eta kezketan oinarrituta; era berean, parte hartzeko metodologia berriak ezarri behar dira, eta bilerak eta batzarrak egituratu behar dira, berauetan parte har dezaten barne karguek kargu publikoek eta beste esparru batzuetako karguek. Gainera, funtsezkoa da harreman hurbil eta egonkorra sustatzea alderdikideen eta haien ordezkarien artean. Partaidetza-kultura bat sortzea, alderdikideen parte hartzea sustatu eta bermatzeko, ideiak elkarren artean partekatuz eta/edo galderak eginez. Komunikazioak bi norabideko prozesua izan behar du. Eta, ildo horretan, komunikazio zuzena eta pertsonalizatua barne hartuko duen ekintza-plan bat ezartzean, haien parte-hartzea eragozten duten oztopoak identifika ditzakegu, eta konponbideak eman, berriro parte hartzera anima daitezten. Horrela baino ez dugu lortuko gure oinarriak finkatzea eta gure Alderdiaren maila guztietan parte hartze aktibo eta konpromisoduna bermatzea.

Hiru hilean behin egingo diren batzarrak jasoko dituen urteko egutegia eginez (maila bakoitzean). Uri erakunde bakoitzaren errealitatek abiatuta, parte hartzerako helburuak ezartzea, kontuan hartuz batzar horien planifikazioa, gai zerrendak, batzarretako edukiak eta barne karguen eta udal karguen parte hartze bateratua, zein EGIko ordezkarien eta HELDUAK taldeko kideena.

Urteko jarduera-egutegi bat diseinatzuz, askotarikoa eta belaunaldi ezberdinen artekoa (politikoa, kulturala eta soziala), alderdiaren antolaketa maila bakoitzean.

Alderdikideen datu-basea etengabe eguneratuz (ALERNA), pertsona bakoitzaren Curriculum Vitaearen datu guztiekin eta harremanetarako datuekin, kontaktu- eta harreman-sare eguneratu bat ahalbidetzeko, alderdikideek eurek aldaketa horiek egin ahal izateko beharko den teknologia egokia jarritz.

ALERNAren barruan atal bat garatzea, alderdikide bakoitzaren intereseko gaiak eta eremuak identifikatu ahal izateko.

4.1.2 Entzutea

Entzute prozesuak egun bizi dugun egoera aldakorrera egokitzea. Sistematika bat diseinatu behar dugu, barruko zein kanpoko karguentzat, egunerokoaren entzute aktibo eta enpatikoa bermatzeko, barruko eskariei eta eskari sozialei erantzun ahal izateko (harremanak alderdikideekin, herritarrekin,

gizarteko eragileekin eta interes-taldeekin,...)

Entzute aktiboa da eta izan behar du gure nortasun-ezaugarrietako bat. Barne karguen eta ordezkaritza karguen berezko zeregin izan behar du. Eta hori horrela izango dela bermatzeko, inbertitu egin beharko da esandako karguek ezagupen, gaitasun eta trebetasun egokiak eskura ditzaten, bai eta entzuteko bideak etengabe berrikusteko eta eguneratzeko ere.

Gaur egun, entzute aktibo honek zeresan berritua eman behar die gure Batzokiei. Kalean dauden egoitzak direnez, Batzokien funtzioa izan behar du gizataldeen eta herritarren kezka jasotzea eta erantzuna ematea. Alderdiaren egiazko 'antena' izan behar dute, eta balio osoz gune sozializat hartuak izan, kritikara eta aldatzeko proposamenetara irekiak. Entzutean oinarrituta lan egitea da kontua.

Entzuteko mekanismoak birpentsatu eta birdefinitu behar dira, euskal hiritargoaren eta eragile sozial, kultural eta ekonomikoen eskariak hobeto identifikatzeko, bai eta joera sozialak eta sakoneko mugimenduak antzemateko ere. Entzute horren kudeaketa barrura begira sistematizatu behar dugu eta azterlan, dokumentu eta hausnarketarako agiri bihurtu, gure politikak gauzatzera begira. Halaber, alderdikideek ere parte hartzeko barne kanalak izan beharko dituzte beren kezka bertan adierazteko, barruko eta kanpoko entzute-zirkulua borobilduz.

Entzute prozesu orok ondorengo fase bat izan behar du, entzuketa horren ondoren hartuko diren neurriak behar bezala ezagutzera emateko.

4.1.3 Tokiko lidergoak

Aberri mailako lidergoetatik harago doazen lidergoak behar ditugu. Tokiko eta sektoreetako lidergoak ugaritzea sustatu behar dugu, eguneroko bizimoduan, barne esparru bakoitzean edo esparru publikoan, barruko eta kanpoko kezka jasotzeko eta aztertzeko gaitasuna izan dezaten, bai eta erantzuteko ere, gizartearen eskariei erantzuna emanaz, herriaren zerbitzura dagoen Alderdi izaera berreraikitze. Tokiko eta sektoreko lidergoak sustatu behar dira:

- Prestakuntza-programak: Tokiko eta sektoreko liderrak komunitate-kudeaketan, komunikazioan eta lidergo inklusiboan gaitzeko programa espezifikoak garatzea.
- Laguntza-sareak: Tokiko eta sektoreko liderrek esperientziak eta baliabideak partekatzeko sareak sortzea, elkarlana eta elkarrengandik ikastea sustatuz.
- Proiektu pilotuak: Mailakatuak izan daitezkeen tokiko eta sektoreko proiektu pilotuak abiaraztea, liderrek erkidegoko eta sektoreko beharrei erantzuteko gaitasuna dutela erakusteko.
- Komunitatearen eta sektoreen ahalduntzea: Komunitateak eta lider sektorialek tokiko eta sektoreko erabakiak hartzeko prozesuetan zuzenean parte hartu ahal izango duten ekimenak sustatzea, EAJ-PNV herriaren eta sektore bakoitzaren zerbitzura dagoen alderdia den aldetik.
- Bozeraileak eta arduradunak izendatzea: Erakundearen esparru guztietan bozerailearen figura sartzea, eta solaskide ofizialak izendatzea hainbat sektore-eremutarako.

Konfiantza sortzeko elementurik garrantzitsuena da tokiko lidergo bakoitzak bere ingurunearekin duen eguneroko harremana.

Funtsezkoa da “eskualde”, “bailara”, “kuadrilla” edo “hamarreko” deitutakoaren zeregina, bere lana baita uri buru batzarrak koordinatzea eta herrialde buru batzarraren jarraibideak transmititzea eta, aldi berean, benetako dinamizatzailerik izan behar du, etxe barruan eta kanpoan, bere eskualde edo bailaran Alderdiaren presentzia indartuz eta eragile eta sektore sozial berrietara zabalduz. Profil egokia bermatzeko, ebaluatu ahal izango diren zeregin eta helburu batzuk landuko dira.

Ezinbestekoa da herrialde buru batzarretatik lurralde mailako koordinazioa egitea, udalerri eta eskualdeen arteko kohesioa lideratuz.

Halaber, beharrezko jotzen da interes-talde ezberdinen ordezkaritza, haien arteko lotura, alderdikideak izateaz gain, antzeko ezaugarriak izatea izango delarik. Zentzu horretan, EAJ-PNVk bere antolaketan sartu beharko ditu interes-talde horietako ordezkariak, belaunaldi ezberdinetakoak (Euzko Gaztedi eta Helduak), jatorri ezberdinetakoak (migratzaileak eta itzulitakoak), genero perspektiba eta sexu aniztasuna kontuan hartuz, besteak beste.

EGlren parte hartzea finkatu behar da Alderdiaren barne antolaketan eta egituraren. EGIk zuzenean parte hartu behar du Alderdiak gazte politiken diseinua egiterakoan. Baliabide nahikoak eman behar zaizkio, babesa eta behar besteko prestakuntza. EGIk inork baino hobeto ezagutzen ditu gazteen ardurak, lehentasunak eta euskal gazteriarekin konektatzeko moduak, eta horretarako behar du are autonomia handiagoa, diskurtsoetan, mezuetan, ekimenetan eta proposamenetan.

4.2 Berrikusi behar dugu

4.2.1 Migratzaileen ahalduntzea eta ordezkaritza politikoa sustatzea:

Migratzaileak gizartean integratzeko modu bat da Alderdiaren militantzia aktiboan sartzea. Migratzaileen parte hartze aktiboa sustatu behar dugu gure erakundean, gure ikuspegia, helburua eta baloreak ezagutzera emanez, gure izaera bereziaren parte egin eta gure mezua helarazi, erabaki politikoak hartzeko prozesuetan integratzeko eta euskal gizartean erreferente eta lider izan daitezen. Alderdiaren organoetan migratzaileen ordezkaritza sustatu behar da, erabaki organoetan ahotsa eta presentzia izan dezaten bermatuz.

Zeregin horretan, Batzokiak izango dira abertzaletasunari buruzko prestakuntza emateko espazioak, bai eta parte-hartze eta laguntza guneak ere, jatorriko euskal herritarrek eta euskal herritar berriak elkartzeko eta bizimodu komun batean bateratzeko. Aniztasunaren eta inklusioaren onurak zabaltzeko eragile aktibo izan behar dugu, bai Alderdiaren barruan, bai gizartean oro har.

4.2.2 Desburokratizatzeko

Informazio, koordinazio, erabaki eta hautaketako prozesuak eta prozedurak berrikusi, horiek sinplifikatzeko, Alderdiaren printzipioei eta indarrean dauden estatutuei jarraiki. Proposatzen da:

- Alderdian ohiko diren izapideak sinplifikatzeko plana, txantiloak eta kudeaketa-metodo arinagoak eta/edo digitalagoak diseinatu. Eta gainera, hori guztia errazteko alderdiko web

orrian, eta pribatua izango den eremu batean, eskuragarri izango dira izapide orri eta txantiloi guztiak.

- Alderdiko hauteskunde-prozesuak arintzeko eta egoera berrietara egokitzeko, plan bat garatuko da, honako hauek kontuan hartuta: lehen eta bigarren itzuliak hiru astetan burutzea, lurraldeko eta nazio-mailako exekutiboak data berean aukeratzea, eta informazio guztia gardentasunez eta modu digitalean kudeatzea.
- Kudeaketa administratiboa eta ekonomiko-finantzarioa aberri mailan zentralizatzea, baliabideen kudeaketa ona ezarri ahal izateko, Uri Buru Batzarren jarduketa politikoaren autonomia galdu gabe. Herrialde buru batzarren aldetik beren lurraldeko Uri Buru Batzarrei kudeaketa administratiborako eta ekonomiko-finantzariorako laguntza eta erraztasuna ematea. Edo, hala erabakiko balitz uri batzarretan, UBBren kontu ekonomikoak lurraldeko exekutiboak kudeatzea.
- Prestakuntza eta laguntza kargudunentzat eta barne kudeaketako arduradunentzat. Buru Batzarrentzat, eta bereziki Uri Buru Batzarrentzat, kudeaketarako eskuliburuak diseinatzea eta egitea. Horretarako material digitala osatuko da, formazio saio bereziak antolatuko dira, mentoretza programak planifikatuko direlarik

4.2.3 Kargu eta ordezkarien jarduna ebaluatzeko sistema

Beharrezkoa da etengabeko ebaluazio bat sistematizatzea, urteko ohiko batzarretan aurkeztu ohi diren zuribideetatik harago. Batzarretako kontu-emate eta ebaluazioetarantz jo behar dugu, hiru hilean behin gehienez ere, eta horiek oinarritzkoak izango dira alderdikideen parte-hartzea berreskuratzeko. Hori guztia behar bezala garatzeko, batzarra egin aurretik, alderdikideei informazio baliagarria helaraziko zaie, modu erraz eta ulergarrian. Gai estrategikoei eta une jakin batean garrantzitsuak izan daitezkeen kontuei dagokienez, lantalde bereziak antola daitezke, kudeaketaren jarraipena zehaztasunez egiteko. Azalpenak emateko eta eztabaidak sustatzeko moduak ere kontuan hartuko dira, metodologia berritzaileen bitartez.

Barne karguek eta erakundeetako ordezkariak, sinesgarritasunez eta eredugarritasunez jardun behar dute, asmo handiko helburuekin. “Iritzi publikoa” deitu den horrekin atsegin izateko tentaldian erori gabe. Gure Alderdiak erakutsi du hasiera batean eta itxuraz batzuen arbuioa jaso duten arren, proiektu ugari (hausnarketa lasaieetatik, beharren diagnostikotik eta etorkizunerako ikuspegi batetik sortuak) gure lurraldearen eta gure gizartearen eragile eta pizgarri bilakatu direla. Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Metroa, Tabakalera...).

Gure barne karguek eta kargu publikoek etengabe sentitu behar dute euskal gizartearen zerbitzura egon behar dutela Alderdiaren ideologiaren eta misioaren arabera eta haren jarraibideak betez, eta beren postuetan jarraituko dute beren lanaren ebaluazioaren arabera. Halaber, beren zereginen barruan egongo da foro presentzial eta digitaletan parte hartze aktibo eta publikoa izatea, Alderdiaren bozgorailu bihurtuz.

4.2.4 Ospakizun nagusiak

Beren formatu eta kokapenari buruzko hausnarketa eta, bere kasuan, Euzkadi osoan ospatzearen inguruan. Horietako batzuk baina mugak jarri barik: Aberri Eguna; uztailaren 31, Alderdiaren

sorreraren urteurrena; Alderdi Eguna; eta Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena.

4.2.5 Bateriaezintasun-sistema

Gure bateraezintasun- eta karguak ez metatzeko sistema berrikusi behar dugu, eguneratzeko. Berrikusketa hau egin beharko litzateke oinarritzat hartuz barne kargua eta ordezkaritza publikoa bateraezinak direla, baina neurtu egin beharko litzateke uri eta herrialde erakunde bakoitzaren errealitatea aintzat hartuz.

Garapen horietan, kontuan hartu beharko da lurralde batzuen egoera berezia, oso bereziki Iparraldeari dagokionez.

4.2.6 Karguen iraupena

Karguetan emango den denbora mugatu beharra Alderdian behin eta berriz eman den eztabaida izan da. Gaur egun, hauteskunde-erregimenek ez dute murrizketarik aurreikusten, alderdi politiko gehienek halakorik ez ezartzea erabaki baitute. Gure ordezkari instituzionalak eta barne-karguak aldatzen direla bermatzeko, bai eta botere-metaketa saihesteko ere, kargu bera bi agintalditan jarraian bete duen edozein pertsonak, alderdikide izan ala ez, agintaldi gehiago izateko aukera izango du, dagokion eremuan gehiago kualifikatua lortzen badu. Horrela, barne-demokrazia indartuko da, eta egonkortasunaren eta berrikuntzaren arteko oreka sustatuko da.

4.2.7 Komunikazio-kanalak indartzea

Alderdikideek egiten duten eskakizun nagusienetakoa da gai ezberdinen gainean Alderdiak duen jarrerari buruzko informazio zehatza eta egiazkoa jaso ahal izatea, iritzi bat izateko. Beharrezkoa da alderdikideek gai politiko garrantzitsuei, nazionaleri eta lurraldekoei, globalei eta sektorialeki dagokienez “gertatzen ari dena” jakitea eta gai horien inguruan Alderdiak daukan iritzi edo jarrera ezagutzea, hori baita beren eragin-eremuan modu eraginkorrean lan egiteko bide bakarra. Gainera, funtsezkoa ere bada kanal horiek erraztea alderdikideen parte hartze aktiboa eta eztabaida, bai eta ideia ezberdinak aurkeztu ahal izatea ere. Ondorengoak proposatzen dira:

- Alderdikideek jasotzen eta eskatzen duten informazio kantitatea eta bere kalitatea berrikustea eta hobetzea, hizkera erraza bermatuz, alderdikide guztientzat ulargarria.
- Gardentasun eta publizitate aktiboko printzipioei eustea eta gardentasun atarira dedikatutako espazioa berriz diseinatzea, funtsezko zereginak dira informazioa aldiro eman dadin eta egiazkoa izan dadin.
- Informazioa jasotzeko orduan alderdikideek Alderdiaren zer kanal eta iturri erabiltzen dituzten aztertzea. Alderdikideei argudio argiak ematea, unean uneko gai nagusien inguruan, beren inguruan Alderdiaren jarrerak eta irizpideak irmotasunez eta sinesgarritasunez defendatu ahal izan ditzaten.
- Antolaketa demokratikoa, militantziazkoa eta arina finkatzea, Euskadik dituen erronka politiko eta sozialei erantzun eraginkorra emateko komunikazio kanalen bidez, Alderdiaren maila guztietan parte hartze aktiboa eta haien arteko etengabeko elkarlana erraztuz.

4.3 Landu behar dugu

4.3.1 Kudeaketa- eta koordinazio-sistematika

Plangintzan oinarritutako kudeaketa- eta koordinazio-sistematika berriz diseinatzea eta unibertsalizatzea, bai erakunde osorako, bai erakunde guztietarako. Uri Buru Batzar bakoitzak eta Herrialde Buru Batzar bakoitzak urteko kudeaketa-plan batean jaso beharko luke zein helburu eta ekintza garatu nahi dituen hurrengo urtean lortzeko; plan hori dagokion batzarrak aztertu beharko luke; eta, onartu ondoren, ohiko batzar bakoitzean planaren garapenaren berri eman beharko luke, eta hori izango da ebaluatu beharko duena.

Kudeaketa-plan horietan, jakina, goiko eremuetan onartutako helburuak eta ekintzen garapena bistaratu beharko dira, arduren banaketa barneratuz, planaren parte erakundea bere osotasunean sentiaraziz, non bakoitzak bere aukeren eta ahalmenen arabera parte hartu dezakeen.

Alderditik ematea uri erakunde bakoitza kudeatzeko plana egiteko jarraibideak eta eredu orokorrak, tokian tokiko egoerara eta alderdikide kopurura egokituak, formatu errazarekin. Ebaluazioa egiteko tresna errazak ematea, uri erakunde guztien egoeraren ikuskera orokorra emango dutenak.

Edozein erakunderentzat elementu kohesionatzailerik handiena helburu eta ekintza partekatutako dira, beren onena emateko prest dauden pertsonekin batera.

4.3.2 Etika sistema eta Compliancea

Sistemaren asmo handiko garapena, Alderdiaren irudi eta izen ona sendotzeko, ondorengoak finkatuz:

- Alderdikide guztiek eta EAJ-PNVk kargu publikorako proposatutako alderdikide ez direnek nahitaez bete beharreko Jokabide-kodea diseinatzea eta onartzea (Ikus I. ERANSKINA).
- Erabakiak hartzeko prestakuntza ematea eta prozesua hobetzea, legea betetzen dela bermatzeko.
- Finantza-gardentasuna
- Jardunbide okerren prebentzioa
- Barne karguen eta kargu publikoen arteko interes-gatazkek kudeatzea.
- Salaketak jasotzeko eta aztertzeko barne-kanal bat, salatzailearen anonimotasuna bermatuz eta prozesu seguru eta konfidentzial bat ziurtatuz.

4.4 Jaso behar dugu

4.4.1 Arreta emateko eta harremanetan jartzeko bermeak, kanal presentzial eta digitalaren bidez. Digitalizazioaren aldeko ahalegin irmoa

Alderdiaren jarduketa esparru guztietarako asmo handiko digitalizazio plana abian jartzea. Plan hau egingo da egungo barne prozesuekin koordinatuta, eta haiek egiten diren aldi berean, Alderdia eguneratzeko baina pertsona edo barne organo bakar bat desabantaila egoeran utzi gabe, arrakala digitala aintzat hartuz. Proposatzen da:

- Afiliaziorako atari digital horretan, alderdikideek informazio guztia aurkituko dute: buletinak, txostenak, bideoak, prestakuntza-ikastaroak, aktak, topaguneak, foro birtualak, hainbat erabaki bozkatzeko aukera eta bileren jarraipena online. Gainera, afiliatuaren erantzukizun-mailaren arabera, beste informazio-mota batzuk ere eskuratu ahal izango ditu. Alderdikideen parte hartze aktiboa sustatze aldera, Alderdiko Batzarrak presentzialak izateaz gain on-line parte hartzeko aukera bermatuko da. On-line Batzarrak jarraitu eta hitzez parte hartzeko aukeraz gain, nortasunaren balidazio sistema segurua bermatuko duen on-line bozketa sistema digitala inplementatuko da.
- Aplikazioak, sare sozialak eta mezularitza aplikazioak optimizatzeko eta Alderdiaren kudeaketan eta barne-bizitzan beren erabilera eta eragina hobetzeko azterketa egitea.
- Batzarretan telematikoki parte hartzeko aukerak arakatzea, bai eta boto telematikoa emateko aukerak ere, alderdikideen parte hartzea errazteko.
- Marketin digitaleko estrategiak eta tresnak aplikatzea, ikus-entzuleengana modu eraginkorrangoan iristeko eta haien interakzioa eta parte-hartzea bultzatzeko, bai kanpaina-aldietan, bai hauteskunderik gabeko aldietan.
- Gutun etiko bat sustatzea, EAJren barne erakundeen barruan komunikazio, informazio eta eztabaidarako kanalak, sareak eta espazioak erabiltzeko. Gutun hau eta Alderdiaren maila guztietan "jokabide oneko kodeak" betetzen direla zaintzea.

4.4.2 Pertsonak kudeatzeko politika integrala

Barne karguentzat zein kargu publikoentzat, ondorengoak barne hartuko dituen:

- Barne kargu edo kargu publiko berrietan hasten diren pertsonentzako harrera-plana (Misioa, ikuspegia, baloreak, helburuak eta zereginak jasoko dituen, bai eta erakundearen egoerari buruzko informazioa ere).
- Ezagupenak, gaitasunak eta harremanetarako trebetasuna lantzeko eta gaikuntza horretan laguntzeko plana, bai eta herritarren aurrean hartutako konpromisoen kudeaketan ere. Gure ordezkarien prestakuntza zaindu behar dugu, beren gaitasunak finkatuz, hori dena apaltasunez.
- Balore, etika eta lege- gaitetan gaitzea eta prestatzea.
- Buru batzarretan hainbat profilen sarrera berrikusi eta aztertzea
- Lurralde historiko bakoitzean prestakuntza talde bat eratzea, aldiro eskaini dezan barne eta kanpoko prestakuntza programa bat.
- Barneko eta kanpoko talentua erakartzeko eta kudeatzeko plan bat egitea.
- Barne kargu eta kanpoko karguetan erreleboak kudeatzeko plana.
- Militantzia luzea eraman duten pertsonen aintzatespena eta errespetua adierazteko politika, berdin barne karguentzat eta kargu publikoentzat, eta ez bakarrik historian zehar, baizik eta beren agintaldia amaitutakoan ere.
- Alderdikideentzat:
 - Alderdikide berriei harrera emateko plana garatzea. Gazteen kasuan, komenigarria litzateke hau Euzko Gazteditik egitea (EGI).
 - Prestakuntza jarraituko plana egitea.

- Kargu publikoaren beraren eta egiten duen lana baloratzea eta aitortzea.
- Alderdikideen ezagupen poltsa eratzea. Alderdikideen gaitasunak eta ezagutzak jasotzea, herri erronken planifikazioari laguntzeko.

4.4.3 Erakundea alderdizaleei irekitzeko estrategia, ondorengoak barnean hartuta

- Figura hori Alderdiaren Estatutuetan jasotzea.
- Komunikazio kanpainak eta jarduerak diseinatzea interesa pizteko eta erakundean parte hartzera animatzeko, ekitaldi publikoetan eta Alderdiaren ospakizun nagusienetan.
- «EAJ-PNVren lagun» horientzat berariazko komunikazio-bideak sendotzea.
- Interesa eragin dezaketen gaien inguruko lan dinamika irekiak sortzea, hala nola hezkuntza, Osasuna, etxebizitza, ekintzailatza, memoria historiko eta demokratikoa, berdintasuna, feminismotik edo ekologismoa, batzuk esatearren, buru batzarrek edo alderdikideek sortuak.

4.4.4 Prestakuntza eta topaketak sustatzea gaika antolatutako lantaldeen bidez, egoitzetan eta Batzokietan jarduera bereziak egiteko eta, halakorik ezean, alderdikideak batzen diren tokietan.

- Prestakuntza saioak: “work kafeak”, hitzaldiak,...
- Alderdikide, kargu eta erakundeetako ordezkarietarako ikastaroak eta prestakuntza moduluak sortzea (on line formatuan edo presentzialak).
- Jokabide onak partekatzeko eskola sortzea (on line formatuan edo presentziala).
- Gogoeta eta heziketa zentro baten sorkuntza: alderdikideei eta gure kargudunei formakuntza iraunkor bat izan dezaten. Beren gaietan adituak diren berezilariak zentro horretara erakarri, gai publikoen aztertzeke eta beren jakintasuna helarazteko Alderdiari eta Alderdikideei, formakuntza gisa.

4.4.5 Elkarlanerako guneak sustatzea

Adineko pertsonen parte hartzea sustatzea, Alderdiaren barruan erreferente politiko diren aldetik eta HELDUAKen Parte Hartze Politikorako Koordinatzailearen figura sortuz. Koordinatzaile honek antolatuko lituzke mintegiak, tailerrak eta eztabaida espezializatuko taldeak, nagusiei emanez beren esperientziak besteekin partekatzeko aukera.

- Entitate, elkarte eta enpresekiko aliantza eta elkarlanerako ereduak formulatzea, urteko kudeaketako planetan jasoko direnak, gizartearen arazo eta eskakizun berriak aztertzeke.
- Gizarte eragileekin elkarlanean, lantalde bat eratzea, azken joera sozial, ekonomiko, kultural eta politikoak eta Euskadin eta Alderdian duten eragina aztertzeke.
- Tresna berriak abian jartzea uri erakundeek (herrialde erakundeek edo aberri erakundeak) antolatutako ekitaldiak eta jarduerak ezagutzeko, eta alderdikideei zabaltzea eta parte hartzeko aukera ematea, dena delakoa izanik zer uri erakundetakoak diren. Eskualdean, herrialde edo aberri mailan hilean egingo diren jardueren planifikazioa eginda, uri erakunde bakoitzak ezarriko ditu alderdikideei berri emateko egoki jotzen dituen mekanismoak.
- Erabakiko diren kontu estrategikoen inguruko eztabaida ahalbidetuko duten mekanismoak abian jartzea.

- Herrialde ezberdinetako uri erakundeen arteko elkar trukaketak ahalbidetzea eta erakunde dinamikoetan ate irekien jardunaldiak antolatzea, gainerakoek nola lan egiten duten ezagutu dezaten.

4.4.6 Antolaketa Txostenak Aberri Estatutuekin eta Jarraipen Lantaldearekin izango duen lotura

Antolaketa Txostenaren zirriborroak jasotzen dituen jarduera-ildoak eta proposamenak, onartuz gero, Alderdiaren barne-arauetan garatu beharko dira, gure Aberri Estatutueta ere. Ezinezkoa da Antolaketa Txosten berri bat lantzen den bitartean Aberri Estatutuak erreformatzeko atazari heltzea. Ematen du zentzuzkoena dela lehenik eta behin antolaketa-eredua onartzea eta, ondoren, Aberri Estatutuak errealitate berri horretara egokitzea.

Bizkor aritzeko eta bi tresna horiek Alderdiaren barne-funtzionamenduan albait arinen jasotzeko, EAJ-PNVren IX. Batzar Nagusiaren baitan hirugarren bilkura bat egitea proposatzen da, martxoaren 29ko eta 30eko bilkuretan Antolaketa Ponentzia onartu ondoren, betiere Batzar horren araudian eta Alderdiaren gainerako arauetan aurreikusitako epeak eta formalitateak betez.

Hirugarren bilkura hori Batzar Nagusiaren behin betiko gai-zerrendan jasoko da, zeina Batzarra ireki baino hamabost egun lehenago bidaliko baita. EBBren aurreikuspenen arabera, bilkura hori 2025eko urria baino lehen egingo da, eta egun hori ahalik eta lasterren emango da ezagutzera, Batzar Nagusiko ordezkariak berme guztiekin parte hartu ahal izan dezaten.

Beraz, kontua litzateke martxoaren 29ko eta 30eko bilkuretan Antolaketa Txostena onartzea, eta geroratutako hirugarren saio horretan Aberri Estatutuak onartzea, Txosten berriaren ondoriozko aldaketak sartuta.

Prozesu horri arintasuna emateko eta Antolaketa Txostenean jasotakoak betetzen direla bermatzeko, Jarraipen Lantalde bat sortuko da, eta hiru hilean behin txosten bat igorriko dio Aberri Batzarrari, onartutako edukien garapenari eta ezarpen-erritmoari buruz.

5 ONDORIOAK

Testuinguru horretan, eboluzionatzeko erronkari heldu behar dio EAJ-PNVk zentraltasun politikoaren erreferentea eta Euzkadiko lehen indarra izaten jarraitzeko. Euskal hiritargoak erakunde sendoak behar ditu ziurgabetasun denboretan gure aingura izan daitezen, gure herria orain arte gidatu duten balore eta helburuak gogora ekarri.

Hala ere, erronka honi alderdikide bakoitzaren inplikazioarekin baino ezin izango zaio heldu. Alderdia sendotzeko identifikatu diren lau gaiak alderdikide guztion ahalegin bateratua eskatzen dute, proposamenen inguruan hausnartu eta dagokien erantzukizun zatia onartu beharko baitute behar dena indartzeko, berrikusteko, lantzeko eta jasotzeko behar den aldaketa bultzatzeko.

EAJ-PNVk erakutsi du Euskadi onbideratzeko eta bere herriaren ametsak betetzeko tresna dela. Orain, erronka da legatu honek iraun dezan eta ondorengo urteotan eboluziona dadin

Alderdiaren benetako eragina ez datza idazten edo esaten den horretan, baizik eta egiten den guztian hau da, jardunbide etiko, garden eta koherenterako eredu izanez, konfiantza emanez eta hiritarrek loturak sendotuz. EAJ-PNVren nortasun publikoa izango da alderdikideen, barne karguen eta erakundeetako ordezkarien eguneroko jardunaren araberakoa. Horregatik, funtsezkoa da proposamenak egintza zehatz eta ukigarri bilakatzea.

Eta zuk, zer egingo duzu?

I.ERANSKINA
JOKAERA KODEA

I. ERANSKINA - JOKABIDE- KODEA

ZER DA EAJ-PNV?

Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vascok honelaxe definitzen du bere burua: hala definitzenbere burua honela definitzen du: Euskal Alderdi demokratiko, parte-hartzaile, anitz, akonfesional eta humanista, aurrerabideari eta zibilizazioaren aurrerabide-mugimendu guztiei irekia.

Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zen euskal herritarrentzat aberri libre bat eraikitzeko, non askatasuna, berdintasuna eta komunitatea oinarritzko balore diren aldetik orekaz uztartuko diren.

Justizia indibidual eta sozialaren balio horiei atxikita, arraza, etnia, ondare, klase, erlijio edo sinesmen, adin, ezgaitasun, sexu, genero-identitate edo sexu-orientazioagatiko aurreiritzi eta diskriminazio oro baztertzen dugu, eta lehendik datorren pribilegio-mota ororen aurka egiten dugu.

Bai EAJ-PNVk, bai berau osatzen duen edozein alderdikidek, kode etiko honetan jasota dagoen edozein printzipioren urratze eraman dezakete Alderdiaren diziplina-organoen aurrera.

JOKABIDE-ESTANDARRAK

Kode Etiko hau aplikatuko zaien pertsona edo entitateek ondorengo arau eta printzipioak errespetatu beharko dituzte:

- Pertsona oro zintzasunez, duintasunez, justiziaz eta errespetuz tratatzea.
- Aplikatu beharreko lege, erregelamendu eta/edo dokumentu guztiak betetzea.
- EAJ-PNVren jardueretan edo ekintzetan parte hartzea eta/edo parte hartu ahal izatea bermatzea, larderiari, diskriminaziorik, jazarpenik edo indarkeriarik gabe, eta, nolanahi ere, berdintasun-baldintzetan.
- EAJ-PNVren baliabideak helburu egokietarako erabiltzea.
- Informazioa arretaz tratatzea eta soilik helburu egokietarako erabiltzea.
- EAJ-PNVren eraginkortasuna hobetzeko lan egitea.
- Ekintzak interes eta/edo harreman pertsonalen eraginpean ez daudela ziurtatzea, ez eta interes-gatazken eraginpean ere.
- Zintzasunez eta gardentasunez jokatzeko, EAJ-PNVren izen ona kaltetzen duen edo bere interes politiko eta/edo asoziatiboetan eragin negatiboa duen jokabide oro saihestuz.
- EAJ-PNVri betebeharren bat ezarriko dioten edo bere jardunean eragina izango duten opariak edo onura pertsonalak baztertzea.

EZTABAIDA SUSTATZEA ETA DEMOKRAZIA BERMATZEA

EAJ-PNV osatzen dugunok pasio osoz sinesten dugu adierazpen askatasunean, pentsamendu aniztasunean eta kontzientzia askatasunean, eta beti defendatuko ditugu printzipio horiek alderdiaren barruan. Hala ere, alderdi politiko bakoitzak zenbait balio partekatu izan behar ditu, eta, alderdiarekin bat egitean, alderdikideek eta erregistratutako alderdizaleek berariaz onartzen dute bat datozela Alderdiaren funtsezko balio eta helburuekin.

EAJ-PNVren jarduera zuzentzen duen parte-hartze politikoa bermatzeko, eztabaida sendo eta sutsua sustatzen dugu politikari, estrategiari eta Alderdiaren jardunari buruz. Era berean, EAJ-PNVko alderdikideei pentsamendu kritikoz jokatzeko deia egiten zaio, alderdiaren aurrerapena bermatzeko

Egingo den eztabaida bakoitzean, elkarrekiko errespetuaren premisatik abiatuko da, horren emaitza ahalik eta emankorrena izan dadin. Testuinguru horretan, ez da onartuko arraza, etnia, jatorri, klase, erlijio edo sinesmen, adin, ezintasun, sexu, genero-identitate edo sexu-orientazioagatiko eraso edo indarkeriarik.

PUBLIKOKI ETA ON LINE EGINIKO ADIERAZPENAK

Kode honetan jasota dauden balore berberak aplikatzen zaizkie alderdikideek Alderdiaren barne esparrutik kanpo eginiko adierazpenei, dela komunikazio elektronikoetan, sare sozialetan eta idatzizko komunikabideetan.

Alderdiaren eta bere hautesleen aurkako erasoak edo adierazpenak sarituak dira sare sozialetan eta komunikabideetan, eta Alderdiko kide guztiek jabetuta egon behar dute Alderdiaren izen ona sare publikoetan zikintzeko egon daitekeen arriskuaz. Horregatik, premiazkoa da Alderdiak berak kritika, desadostasuna edo eztabaida sortzeko duen tresna erabiltzea. Zentzu honetan, EAJ-PNVk hitzematen du barne-eztabaidak bultzatzeko tresnak garatuko dituela.

BARNE KARGUEI ETA KANPOKO KARGUEI BURUZ

EAJ-PNVk barne-kargu edo kargu publiko baterako izendatutako pertsona orok jakin behar du bere jarduerak eragina izan dezaketela Alderdiaren ospean eta izenean

Botere eta eragin handiena duten Alderdiko kargudunek beren posizioa erabili behar dute Alderdia batzeko.

Alderdiak izendatutako kargu publikoek, gizartearekin duten konpromisoa berretsiz, jarrera eredugarria, arduratsua eta zintzoa erakutsi beharko dute uneoro.

Aitzitik, karguei eskatzen zaien jarrera-eredu horrek ez du inoiz eragin zuzenik izan behar haien bizitza pribatuan, eta arlo horri buruzko edozein iritzi gaitzesten dugu.

APLIKAZIO-EREMUA

Kode Etikoa EAJ-PNVko alderdikide eta/edo alderdizale guztien jokabideari eta/edo jarduerari aplikatzen zaio, adierazpen gisa soilik eta izaera ez mugatzailearekin, kargu publikoak/barnekoak izan ala ez, eta EAJ-PNVrekin edozein harreman duten pertsona, erakunde, enplegatu, boluntario, hornitzaile edo kontratista guztiei.

Illo beretik, Kode Etikoa aplikatuko da EAJ-PNVren egoitza, udal-erakunde, batzoki edo lokaletan, lantokietan, hauteskunde-kanpainetan, ekitaldietan, bileretan, hitzaldietan edo EAJ-PNVren

jarduerarekin zerikusia duten ekitaldi sozial publiko eta/edo pribatuetan.

KODE ETIKO HONI ATXIKITZEA

Kode etiko horri atxikitzea nahitaezkoa izango da EAJ-PNVko alderdikide guztientzat, organo eskudunak onartu ondoren. Egun horretatik aurrera, alderdikidetu nahi duen pertsona orok agiri honen edukia onartu beharko du. Era berean, EAJ-PNVk izendatutako kargu publikoak dituzten jarraitzaileek ere Kode Etiko honekin bat egin beharko dute.

KODE ETIKOA EZ BETETZEA

Kode etiko honen edukiari buruzko edozein ez-betetze larri EAJ-PNVren zehapen-araubidearen bidez arautuko da, eta araubide hori kodearen edukira egokitu beharko da.